

# GAZTAINAK

ETNOLOGIA ETA DIALEKTOLOGIA LEHIAKETA - 2000.eko apirila

Transmisorearen izen- abizenak: Maria Angeles Gonzalez Ezpeleta.

Adina: 64 urte.

Herria: Arantza, Eskerrenekoborda baserria

Gaia: Gaztain fruituaren aprobetxamendua.

Oharra: Transkripzioan ahoskera eta hizkera errespetatu dugu.

## Transkripzioa:

*Aurkezpena:* Kaixo, Arantzan gaude, Eguzkialdea auzoan Exkerrenekoborda baserrian. Gurekin Maria Angeles Gonzalez Ezpeleta, 64 urteko arantzarekin solastuko gara garai batean gaztainen inportantziari buruz.

*Galdera:* Nola biltzen zintuzten gaztainak?

*Maria Angeles:* Lemiziko agakin bota arbolan gaintik lurrera. Ta, gero itten ziren egurrezko urtxil ttiki batzuk, matxarda erratten geniona ta ekin morkotsa artzen zen zarera, miazarera ta miazaria betetzen zen denborin itten zen zare aundira bota ta zare aundiya betetzen zen denborin ixkindira garraittu bizkarrin artuta.

*Galdera:* Zein preziotan saltzen zintuzten gaztainak?

*Maria Angeles:* Lemiziko gaztainak, San Migel gaztainak ta gaztain xuriyak ta orik itten zuten prezia geixigo, roktarrak ta. Itten zuten amabi kilo erruguko. Errugua zatten zen ogeitalau kilo. Ta gero gaztainak geigo ontzen zen denborin, bertze klasik ontzen zen denborin itten zen bajatu. Amar duro o zazpi duro ola segun ze gaztain biltzen zen.

*Galdera:* Zein dendatan saltzen zintuzten?

*Maria Angeles:* Xuantenera, Gartxinera, Bolinia, Apeznia ta Berganera.

*Galdera:* Gaztain guztiak saltzen zintuzten?

*Maria Angeles:* Ez, ez, itxin negun jatko, itxin gelditzen zen zerrindako ta obenak jendik nortzen, nor bizi zen, ek jatko.

*Galdera:* Gaztainak biltzeko ixkindiyak erabiltzen zintuzten?

*Maria Angeles:* Ixkindiyak zatten ziren paretazko arriyak inak, paretak, ta zatten ziren ixkindiyak, etara itten ziren garraittu bizkarrin.

*Galdera:* Zein aritzen zinten gaztainak biltzen?

*Maria Angeles:* Itxin nor izatten zen, ek. Anaiak do ama igual ta gu gioune.

*Galdera:* Nola garraitzen zintuzten errira?

*Maria Angeles:* Astukin, urte batzuz astukin ta astua zartuta il tzelikan biorra; biorran gain zakutan.

duro

*Galdera:* Zein gaztain mota daude?

*Maria Angeles:* San Migelak, erratten zaionak lemiziko ontzen zena, gero, gaztain xuriya, gero, roktarra ta, ori, txertagorriyak ta erratten geniona, gero gaztaiñ gorriyak ta amoltsak.

*Galdera:* Zein gaztain klase saltzen zintuzten geien?

*MariaAngeles:* Amoltsak, amoltsa gaztaña, azkenko ontzen tzena.

*Galdera:* Gaztañak prestatzeko moduak zeintzuk dira?

*Maria Angeles:* Lemiziko, asiran eitten dire egosita, ta gero, berriz, pixkot sekatzan asitzen direlikan, erreta zartanin.